

ARBITRAJE-IKASTAROAREN DEIALDIA

Euskal Karate Federazioak, Arbitraje Sailaren bidez, ikastaroaren deialdia egin du, 2026ko urtarrilaren 24erako, Katako epaile, Katako B epaile nazional, Kumiteko eskualdeko arbitro, Kumiteko B arbitro nazional eta epaile kronometratzaile titulua lortzeko, baita orain arte emandako titulazioak eguneratzeko ere.

ESKAKIZUNAK

Eskualdeko arbitroa / Eskualdeko epailea

- 18 urte
- 1. Dan
- Argazkia (lizentzia-fitxan egon beharko du)
- FVK/EKF 2026 lizentzia
- Eguneratze-kuota: 45 €
- Bi titulazioetarako inskripzio-tasa: 75 €.
- Titulazio bakar baterako inskripzio-tasa: 50 €.

B mailako arbitro nazionala / B mailako epaile nazionala

- 22 urte
- 2. Dan
- FVK/EKF 2026 lizentzia
- Urtebeteko antzintasuna arbitro / eskualdeko epaile gisa
- Eguneratze-kuota: 45 €
- Bi titulazioetarako inskripzio-tasa: 100 €.
- Titulazio bakar baterako inskripzio-tasa: 75 €.

Epaile kronometratzailea

- 18 urte
- Gerriko marroia
- Argazkia (lizentzia-fitxan egon beharko du)
- FVK/EKF 2026 lizentzia
- Izena emateko kuota: 45 €

Izena emateko epea urtarrilaren 21an amaituko da. Ordainketa www.karateeuskadi.eus plataformaren bidez baizik ezin izango da egin.

Ohar argigarria: Izangai berriek edo eguneraketa galdu dutenek lizentzia izan beharko dute, kirolari edo teknikari izateagatik, prestakuntza amaitu ondoren; era berean, epaile- / arbitro-lanak bete ahal izateko, epaileen estamentuaren lizentzia eduki beharko dute.

Eguneraketa nahi duten izangaiek epaileen estamentuaren lizentzia izan beharko dute, eta, hori gorabehera, beste estamentu batzuenak eduki ahal izango dituzte.

UNIFORMEA

Teoria eta praktika: Kata eta Kumitea, arbitrajeko arauzko uniforme.

Kata: Karate-gi (soilik titulazioa lortzeko izangaia)

Nahitaezkoa da; bete ezik, kanpoan utziko da eta ezinezkoa izango da bertan egon.

EGUNERAKETAK:

Euskal Federazioan egindako eguneraketek hiru urteko balioa dute, eta ezinbestekoa da osorik egitea, azterketak bezala (kata izan ezik).

Azken hiru urteetan eguneraketarik egin ez duten epaileek / arbitroek ikastaro osoa egin beharko dute, azterketa teorikoak eta praktikoak barne. Tituludun berriek bezala ordainduko dituzte tasak.

NON EGINGO DEN

Teoria: **BASQUETEAM ZENTROA**
Fadura, Getxo - Bizkaia

Praktika: **BASQUETEAM ZENTROA**
Fadura, Getxo - Bizkaia

ORDUTEGIA:

Urtailaren 24a:

10:00etatik 14:00etara

Kata eta Kumiteko araudia irakurtzea eta aztertzea.

Azterketa idatzia (1. deialdia)

16:00etatik 19:00etara
Kata / Kumiteko praktikak

19:00etatik 19:30era
Kataren azterketa praktikoa (Karate-gi) (1. deialdia), eguneraketak izan ezik.

Otsailaren 28a:

10:00etatik 13:00etara
Kata / Kumiteko praktikak
Azterketa idatzia (2. deialdia) 9:00 etatik 9:30etara
Kataren azterketa praktikoa (Karate-gi) (2. deialdia), eguneraketak izan ezik.

Martxoaren 22a:

Azterketa praktikoa Euskadiko txapelketa ofizial federatuan.

Nahitaezkoa izango da titular izan edo eguneraketa lortu nahi duten izangaiantzat:

- Urtailaren 24ean saio teoriko eta praktikora joatea, eta kataren azterketa teorikoak eta praktikoak egitea.
- Kata / Kumite praktika guztietara joatea.
- Lehenengo deialdian gai ez diren izangaiek bigarren deialdiko azterketak egingo dituzte.
- Azterketak ez gaingaitzeagatik edo praktikan gaitzat ez jotzeagatik, ez gai kalifikazioa lortzen duten izangaiak ez dira azterketa praktikora joango Euskadiko Txapelketa Ofizial Federatuan.

Txapelketa amaitu eta batzordeak Tatami Manager-en txostena aztertu ondoren, Arbitraje Batzordeak emaitzen akta argitaratuko du FVK/EKFren webgunean, eta hautagai guztiei jakinaraziko zaie.

Etorriko zarelakoan, adeitasunez, agur.

Presidentea FVK-EKF

Zuzendari teknikoa FVK-EKF

